

IDATZIZKO ULERMENA 1

Dinosauroak

Duela 200 milioi urte inguru, planeta honetan inoiz izan diren animalia handienak eta izugarrienak agertu ziren. Azal lodi-lodia eta ezkataduna zuten, buru gainean gandorra, lepoko tolestura irtena, hortz zorrotzak eta aho kakoduna... Batzuk izugarri handiak ziren, eta hamar elefantek adina pisatzen zuten; beste batzuk, aldiz, ez ziren oiloa baino handiagoak.

Batzuek oso buztan luzea zuten; beste batzuek oso lepo luzea eta, lepo gainean, buru txiki-txikia. Bi edo lau hanka zituzten, baina, askotan, atzeko bi hanken gainean altxatzen ziren. *Dinosauro* hitzak «musker izugarria» esan nahi du! Ez zuten ez hegan ez igeri egiten, baina arrautzak erruten zituzten, hegaztiekin bezala; izan ere, hegaztiak dinosauroen ondorengoak dira.

150 milioi urtez bizi izan ziren Lurrean, baina duela 64 milioi urte dinosauroak modu misteriotzuan desagertu ziren. Zer gertatu ote zen? Adituen ustez, hainbat arrazoi egon daitezke dinosauroak desagertzeko: landare toxikoak agertzea, itsasoaren maila handitzea, klima aldatzea, Lurraren eta meteorito baten arteko talka... Misterioa ez da oraindik argitu!

Historiaurrea, Ttartalo (moldatua).

1 Erantzun galderei.

—Noiz bizi izan ziren dinosauroak? Zenbat denbora bizi izan ziren?

—Noiz desagertu ziren?

—Zer esan nahi du *dinosauro* hitzak?

—Zer animalia-espezie da dinosauroen ondorengoa?

2 Itxura bera al zuten dinosauro guztiek? Deskribatu nolakoak ziren.

3 Zergatik desagertu ziren dinosauroak? Aipatu adituek desagertze hura azaltzeko zer arrazoi ematen duten.

4 Ba al dakizu beste zerbait dinosauroei buruz? Kontatu.

Pentsatu apur bat gehiago

Gaur egun, animalia-espezie asko desagertzeko arriskuan daude. Zer egin daiteke espezie horiek babesteko? Azaldu zure iritzia.